

GRADUA: INGENIERITZA ZIBILA

GRADU AMAIERAKO LANA

***HIRI-DRAINATZE SISTEMA JASANGARRIEN
APLIKAZIO IKERKETA BILBOKO ETXEBARRIA
PARKEAN.***

Ikaslea: Oleaga Payo, Izaskun

Zuzendaria: Madrazo Uribeetxebarria, Eneko

Ikasturtea: 2019-2020

Data: Bilbon, 2019ko azaroaren 4an

LABURPENA

Proiektu hau Bilboko Udalaren laguntzarekin batera egin den ikerketa bat da. Ikerketa hau Bilboko Etxebarria parkean kokatzen da. Ikerketa honekin lortu nahi dena da egiaztatzea posible dela hiri jasangarriak eraikitzea eta etorkizunean ikuspuntu ekologikoago batetik eraiki behar ditugula hiriak. Horretarako, hiri-drainatze sistema jasangarriak zer diren eta ze mota dauden azaldu egin da. Gainera, Espainian mailan zein Euskal Herri mailan zeinbat adibide azaldu dira. Proiektuaren helburu nagusia parkean hiri-drainatze sistema jasangarriak kokatzea da eta horretarako saneamendu sarea aztertuko da EPA-SWMM programarekin. Software honetan orain dagoen saneamendu sarea diseinatu da eta aukeratutako drainatze jasangarriak gehitu egin dira. Proposatzen den hiri-sistema hiru bioerretentzio gunez eta infiltrazio zanga batez osatuta egongo dago. Gainera, sistema hauek sarean integratuko dira eta ez da parkearen erabilera aldatuko. Drainatze jasangarri hauekin lortuko dena da puntako emariak txikitzea eta gehien bat, azpi-arroek jasango duten ur-bolumen totala murriztea.

Hitz-gakoak: drainatzeak, jasangarritasuna, bioerretentzio guneak, infiltrazio zangak eta saneamendu sarea.

RESUMEN

Este proyecto es una investigación llevada a cabo en el Parque Etxebarria, realizada en colaboración con el Ayuntamiento de Bilbao. Lo que queremos lograr con esta investigación es demostrar que es posible construir ciudades más sostenibles y que en un futuro será necesario construir ciudades desde una perspectiva más verde. Con este fin, se ha explicado qué son y qué tipos de sistemas de drenaje urbanos sostenibles existen. Además, se han dado ejemplos de España y del País Vasco. El objetivo principal del proyecto es ubicar sistemas de drenaje urbano sostenibles en el parque y analizar las consecuencias la red de saneamiento con el programa EPA-SWMM. En este software, se ha diseñado la red de saneamiento existente y se han agregado los drenajes sostenibles seleccionados. El sistema urbano propuesto consistirá en tres drenajes de bioretención y una zanja de infiltración. Además, estos sistemas se integrarán en la red y no cambiarán el uso del parque. Con este sistema de drenajes sostenibles se logrará reducir el flujo de la punta y, sobre todo, reducir el volumen total de agua que sufrirán las subcuencas.

Palabras clave: drenajes, sostenibilidad, áreas de bioerretención, zanjas de infiltración y red de saneamiento.

ABSTRACT

This project is an investigation carried out in collaboration with the Bilbao City Council that is located in the Etxebarria Park in Bilbao. What we want to achieve with this research is to demonstrate that it is possible to build more sustainable cities and that in the future it will be necessary to build cities from a greener perspective. To this end, it has been explained what are they and what types of sustainable urban drainage systems exist. In addition, examples have been given from Spain and the Basque Country. The main objective is to locate sustainable urban drainage systems in the park and analyze the consequences of the sanitation network with the EPA-SWMM program. In this software, the existing sanitation network has been designed and the selected sustainable drains have been added. The proposed urban system will consist on three bioretention drains and an infiltration trench. In addition, these systems will be integrated into the network and will not change the use of the park. With this system of sustainable drainage, it will be possible to reduce the flow of the tip and, above all, reduce the total volume of water that the subcatchments will suffer.

Keywords: drainage, sustainable, bioretention drains, infiltration trench and network drainage.

AURKIBIDEA

IRUDIEN AURKIBIDEA.....	5
TAULEN AURKIBIDEA.....	7
GRAFIKOEN AURKIBIDEA.....	7
1. SARRERA.....	8
2. HIRIETAKO URAREN KUDEAKETA.....	8
2.1 HAZKUNTZA DEMOGRAFIKOA.....	8
2.2 URAREN ZIKLOA ETA BERE PROBLEMATIKA.....	9
2.3 ZELAN GESTIONATZEN DITUGU GURE HIRIETAKO URAK?.....	11
3. DRAINATZE JASANGARRIKO HIRI-SISTEMAK.....	13
3.1 ZER DIRA DRAINATZE JASANGARRIAK?.....	13
3.2 DRAINATZE JASANGARRIKO HIRI-SISTEMA MOTAK.....	13
3.3 EUSKAL HERRIAN APLIKATUTAKO ADIBIDE BATZUK.....	19
3.4 ESPAINIAN APLIKATUTAKO ADIBIDE BATZUK.....	22
4. DRAINATZE JASANGARRIEN AUKERAKETA IRIZPIDEAK.....	25
5. STORM WATER MODEL MANAGEMENT (SWMM).....	27
5.1 ZER DA SWMM?.....	27
5.2 MODELIZAZIOAREN EZAUGARRI OROKORRAK.....	27
5.3 PARAMETROEN EZAUGARRIAK.....	28
6. LANAREN IRISMENA ETA HELBURUAK.....	28
7. LANAK DAKARTZAN ONURAK.....	29
8. AZTERKETA EREMUAREN EGUNGO EGOERA.....	29
8.1 KOKAPEN GEOGRAFIKOA.....	30
8.2 GEOLOGIA ETA MORFOLOGIA.....	31
8.3 HIDROLOGIA.....	35
8.4 KLIMATOLOGIA.....	35
9. PLANTEATUTAKO SOLUZIOAREN DESKRIBAPENA.....	38
9.1 KOKAPENA.....	38
9.2 EURI LORATEGIEN DISEINUA.....	39
9.3 INFILTRAZIO ZANGEN DISEINUA.....	42
10. SOLUZIOAREN AZTERKETA HIDRAULIKOA.....	45
10.1 DISEINUKO EURIAK.....	45
10.2 MODELOAREN PARAMETROAK.....	47

10.3 EMAITZAK	54
11. AURREKONTUA	63
11.1 ERAIKUNTZA KOSTUAK	63
11.2 MANTENIMENDU KOSTUAK.....	65
12. ONDORIOAK.....	67
13. ARAUDIA.....	67
14. BIBLIOGRAFIA.....	70
15. ERANSKINAK	72
I. ERANSKINA. EPA-SWMM-KO AZTERKETA	72
II. ERANSKINA. AURREKONTUA	110
III. ERANSKINA. PLANOAK.....	117

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. Irudia: biztanleria hiritarra eta landatarren garapena.....	8
2. Irudia: hiriguneko ur-zikloa.....	10
3. Irudia: gizakiok urari ematen dizkiogun erabilera desberdinak	11
4. Irudia: hiriaren ur-zikloaren eskema	12
5. Irudia: drainatze jasangarrien sailkapena.....	14
6. Irudia: teilatu begetalak.....	15
7. Irudia: ur tanga	15
8. Irudia: zoladura iragazkorra.....	16
9. Irudia: egiturazko zuhaitz-txorkoak	16
10. Irudia: euri lorategiak	17
11. Irudia: teilatu begetalak.....	21
12. Irudia: sare formako kutxak.....	18
13. Irudia: drainatze iragazleak	18
14. Irudia: areka begetalak	19
15. Irudia: Cesar Benito futbol zelaia	19
16. Irudia: drainatze jasangarrien eskema	20
17. Irudia: futbol zelaiko ura jasotzen duen areka.....	20
18. Irudia: Avenida Gasteizeko drainatze sistemak.....	21
19. Irudia: Avenida Gasteizeko drainatze sistemak.....	21
20. Irudia: Cear Benito futbol zelaia	25
21. Irudia: euri lorategi batzuen adibideak	23
22. Irudia: infiltrazio sakonune baten adibidea	23
23. Irudia: euri lorategi batzuen adibideak	24
24. Irudia: infiltrazio zangen adibidea	24
25. Irudia: drainatze jasangarrien diseinuaren pausuak	25
26. Irudia: drainatze jasangarrien sailkapena CIRIA manualaren arabera	26
27. Irudia: : parke Etxebarriaren goitiko bista	29
28. Irudia: parke Etxebarriaren goitiko bista	30
29. Irudia: Bilboko mapa bat	30
30. Irudia: Etxebarria parkearen eskema bat	31
31. Irudia: infiltrazio koefizienten sailkapena	32
32. Irudia: Bilboko mapa geologikoa	32
33. Irudia: Etxebarria parkeko mapa geologikoa	33
34. Irudia: lurzoruen talde hidrologikoak	34
35. Irudia: lurzoruen talde hidrologikoen sailkapena.....	34
36. Irudia: Bilboko urteko batz besteko prezipitazio eta temperatura balioak.....	36
37. Irudia: Bilboko estazioaren datuak	36
38. Irudia: 24 orduko prezipitazio maximoak birgertatze aldi desberdinetarako.....	37
39. Irudia: parametro klimatologikoak Bilbon.....	37
40. Irudia: Bilboko prezipitazio maximoak	37
41. Irudia: Bilboko IDF kurbak	37

42. Irudia: drainatze jasangarrien sistemen eskema	38
43. Irudia: euri lorategi baten adibidea.....	39
44. Irudia: bioerretentzioaren azalera	40
45. Irudia: bioerretentzioaren azalera	40
46. Irudia: bioerretentzioaren azalera	41
47. Irudia: euri lorategi baten eskema	41
48. Irudia: infiltrazio putzu baten eskema.....	42
49. Irudia: infiltrazio zanga baten irudia	43
50. Irudia: zangaren azaleraren irudia	44
51. Irudia: infiltrazio zanga baten irudia	44
52. Irudia: euri lorategien mantenu irizpideak	47
53. Irudia: hodien lodiera	48
54. Irudia: hodien malda	48
55. Irudia: putzuen kota	49
56. Irudia: azpiarroen azalera	50
57. Irudia: azpiarroen malda.....	50
58. Irudia: bioerretentzio guneko gainzaleko parametroak	51
59. Irudia: bioerretentzio guneko lurzoruaren gainazala	51
60. Irudia: infiltrazio zangaren lurzoruaren parametroak	51
61. Irudia: bioerretentzioaren gainazala.....	52
62. Irudia: bioerretentzioaren lurzoria	52
63. Irudia: bioerretentzioaren biltegia	53
64. Irudia: infiltrazio zangaren gainazala	53
65. Irudia: infiltrazio zangen lurzoria	54
66. Irudia: modeloaren maparen eskema orokorra	54
67. Irudia: T10ko 1. Bioerretentzioaren arroen sarrerako emariak	55
68. Irudia: T10ko 2. Bioerretentzioaren arroen sarrerako emariak	56
69. Irudia: T10ko 3. Bioerretentzioaren arroen sarrerako emariak	56
70. Irudia: T10ko infiltrazio zangaren arroen sarrerako emariak	57
71. Irudia: T25ko 1. Bioerretentzioaren arroen sarrerako emariak	58
72. Irudia: T25ko 2. Bioerretentzioaren arroen sarrerako emariak	58
73. Irudia: T25ko 3. Bioerretentzioaren arroen sarrerako emariak	58
74. Irudia: T25ko infiltrazio zangaren arroen sarrerako emariak	59
75. Irudia: T50ko 1. Bioerretentzioaren arroen sarrerako emariak.....	60
76. Irudia: T50ko 2. Bioerretentzioaren arroen sarrerako emariak.....	60
77. Irudia: T50ko 3. Bioerretentzioaren arroen sarrerako emariak.....	60
78. Irudia: T50ko infiltrazio zangaren arroen sarrerako emariak.....	61
79. Irudia: mantenimendu ariketen egutegia	65
80. Irudia: mantenimendu kosteen aurrekontua	65

TAULEN AURKIBIDEA

Taula 1: Intentsitatearen balioak.....	45
Taula 2: intentsitateen balioak	46
Taula 3: intentsitateen balioak	46
Taula 4: hartutako azpiarroaren azaleraren ehunekoa.....	55
Taula 5: T10rako murriztutako emariak.....	57
Taula 6: T10rako murriztutako bolumenak.....	57
Taula 7: T25rako murriztutako emariak.....	59
Taula 8: T25rako murriztutako bolumenak.....	59
Taula 9: T50rako murriztutako emariak.....	61
Taula 10: T50rako murriztutako bolumenak.....	61
Taula 11: 1.bioerretentzioarn aurrekontua.....	63
Taula 12: 2.bioerretentzioaren aurrekontua.....	63
Taula 13: 3.bioerretentzioaren aurrekontua.....	64
Taula 14: infiltrazio zangaren aurrekontua	64
Taula 15: mantenimendu kosteen aurrekontua.....	66

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. Grafikoa: intentsitateen balioak.....	45
2. Grafikoa: intentsitateen balioak	46
3. Grafikoa: intentsitateen balioak	46

1. SARRERA


Bilboko Udalak hiri-drainatze sistema jasangarriak aplikatu nahi ditu udalerrian, baina oraindik zehaztu gabe dauka nola. Euskal Herriko Unibertsitatea udalarekin jarri zen kontaktuan eta eremu jakin batean hiri-drainatze sistema jasangarriak nola aplikatu daitezkeen eta hauen eragina aztertzeko proposamena egin zion. Proposamen hori praktika-lanaldi batean eman da eta udalak beharrezko datuak eta planoak erraztu ditu. Udalak aukeratu duen eremua ikerketarako Bilboko Etxebarria parkea da, udalerrri honetako handienetakoa.

2. HIRIETAKO URAREN KUDEAKETA

2.1 HAZKUNTZA DEMOGRAFIKOA

Nabarmena da gaur egun ezagutzen dugun mundua, ez dela orain dela mende erdi bizi izan zutena eta ez dela berrogeita hamar urte barru biziko dutena, gizartearen hazkundeak eta hiri-guneetan kontzentratzea dela eta. Munduko herritan beharrak aldatuko dira, hirien egiturak eta banaketa espazialean eraginez eta baliabide naturalen mugaketari egokituz.

Garrantzitsuena da jakitea zelako joera emango den demografikoki, ez zehazki orain zenbat biztanle bizi diren landa eremuan eta zenbat hirian. Horrekiko, aurreikusten da hasieran bi eremuak hazi egingo direla eta ondoren, landa eremuko demografia jaisten joango dela eta aldiz, hirikoa igotzen (Puyol, 2012).



1. irudia: biztanleria hiritarra eta landatarren garapena. Iturria: Nora Narbaiza.

Honek dena eragin txarra edukiko du baliabide hidrikoetan, biztanleria ez bezala uraren kantitatea txikitzen joango delako. Izan ere, hiriak handitzean gunek berdeak desagertarazten joan dira eta aldiz, gunek iragazkorrak handitzen. Honek, hiriko lurzoruen aberastasun naturala galtzea eragin du besteak beste.


2.2 URAREN ZIKLOA ETA BERE PROBLEMATIKA

Uraren zikloa edo ziklo hidrológico, hidrosfera osatzen duten leku desberdinetatik uraren zirkulazioa da. Ziklo biogeokimikoa da, esku-hartze kimiko gutxi daukana, ura bakarrik leku aldatzen delako edo egoera fisikoa aldatzen duelako. Ura hiru egoeratan existitzen da: solido, likido eta gaseoso. Uraren zikloa ozeanoetako gainazaleko uraren lurrunketarekin hasten da. Igotzen den heinean, hezetutako airea hozten doa eta lurruna ur bihurtzen da, kondentsazioa deitzen dena. Ur tantak batzen dira eta hodeiak sortzen dira, ondoren berezko pisuagatik jausten dira, prezipitazioa dena. Atmosfera hotz badago, ura elur edo txingor moduan jausten da, aldiz, bero badago euri ura eran jausten da. Lurrazalera heltzen den uraren parte bat gizakiek erabiltzen dute, beste parte bat errekarara, lakura edo ozeanora helduko da. Fenomeno honi jariatzea deitzen zaio. Bestalde, beste ehuneko bat lurzoruan infiltratuko da akuiferoak sortzen eta aldiz, prozesu honi infiltrazioa deritzo.

Izaki bizidunak, prozesu metabolikoen bidez parte hartzen dute ziklo hidrológicoan, ura hartuz eta kanporatuz. Berezi landareak, atmosferak daukan uraren %10 ematen dutelako.

Gainera, urak hirigunean daukan zikloa desberdina da eta hiru fase hauetan azaldu daiteke:

- *Ur-hornikuntza*. Ura erreka, laku, akuifero etab-retik hartzen da eta edateko ur bihurtzen da. Ondoren, ur hori edateko prest dagoenean hirigunetako ur-biltegietan gordetzen da, geroago hodian bidez etxera eramateko.
- *Saneamendua*. Ura behin erabilia, euri urekin batzen da batzuetan eta ur-araztegietara bideratzen da. Bertan, ura garbitu egiten da eta ondoren, inguruko ur ibilgu naturalera isurtzen da.
- *Berrerabilpena*. Behin tratamendu bat jasota, askotan ur hauek berriro erabiltzen dira baina gizakiak ez du kontsumitzen. Erabilpen arruntenak lorategien ureztapena edo erabilpen industrialak izan daitezke.



2. irudia: hiriguneko ur-zikloa. Iturria: GIAE.


Urbanizazioa lurzoru naturalen edo erabili ezin diren lurzoruen garapena da eta prozesu honek eragina dauka ziklo hidrolotikoan. Jarraian uraren kantitatean eta kalitatean daukan inpaktua azalduko da.

Urbanizazioaren inpaktua uraren kantitatean. Urbanizazio prozesuak infiltrazioaren murrizketa dakartza, landaredi naturalaren ezabapena eta ura metatzen den lurzoruen irregulartasunen desagertzea. Honen eragin adierazgarriak honako hauek dira:

- Puntako emarien handipena
- Jariatze bolumen handiagoak
- Uholdeen areagotzea
- Baseko emariaren murrizketa

Urbanizazioaren inpaktua uraren kalitatean. Hirietako gizakien ekintzek hondakin bolumen handia sortzen dute, gehienetan hirietako arroen gainazalean utziz. Honek honako eragin kaltegarriak ditu:

- Kutsatzaileen handipena
- Uren tenperaturen aldaketak
- Uretako espezie dibertsitatearen murrizketa
- Gizakiarentzat arriskutsuak diren substantzien agertzea



3. irudia: gizakiok urari ematen dizkiogun erabilera desberdinak. Iturria: Julia Otano.

2.3 ZELAN GESTIONATZEN DITUGU GURE HIRIETAKO URAK?

Hiri gehienek drainatze sistemen helburu orokorra, euri ur guztiak arroen puntu baxuenetara bideratzea da. Hauetako fluxu gehienak ur araztegi batera heltzen dira (EDAR batera) eta honek arazoak sortzen ditu instalazioetan, ur karga handiegia delako. Hala ere, euri garaian, sarea ez da gai izaten gainazaletik doan ur jariatze kutsakor osoa biltzeko eta honek eraginak dakartza ingurumenean, putzuak etab sortuz. Gainera, bildutako ur-bolumena oso handia denean, kolektoreak, ekaitz tangak, ponpaketa-zentralak eta EDAR-ak ez dira gai ur guztiak ondo gestionatzeko eta ingurune naturalera isurtzen dituzte ur kutsatu hauek.



4. irudia: Hiriaren ur-zikloaren eskema. Iturria: Aqualia.

Saneamendu sistema konbentzionalek eragiten dituzten arazo orokorrak hauek dira:

- Sistema unitarioen deskargak
- Kutsadura lausoa
- Ura alferrik galtzea
- Emariak handitzea ibaian behera

Arazo hauek konpontzeko hiri-drainatze sistemak malguagoak eta moldagarriagoak izan behar dira. Horretarako, drainatze sistemak ikuspegi jasangarri batetik eraman behar dira, drainatze jasangarriak erabiliz.

3. DRAINATZE JASANGARRIKO HIRI-SISTEMAK

3.1 ZER DIRA DRAINATZE JASANGARRIAK?

Hiri-drainatze-sistema jasangarriek euri uren kudeaketarako erabilgarriak diren hainbat teknika erabiltzen dituzte. Sistema hauek, gainazalean sorturiko gehiegizko isurketa jaso, iragazi, gorde, garraiatu, biltegitatu eta lurlean infiltratzen dute. Aldi berean, substantzia kutsagarriak murrizteko kapaz dira. Drainatze sistema konbentzionalekin konparatuz, drainatze jasangarriak elementu estrukturalak edukitzeaz gain beste teknika batzuk barne hartzen dituzte, bideen garbiketa adibidez.

Drainatze jasangarrien teknikak eragin baxuko garapenaren (Low Impact Development) barruan bilduta geratzen dira eta lehenengo momentutik, kontuan hartzen dute drainatze konbentzionalek daukaten problematika. Teknika hauek herrialdearen arabera modu baten deitzen dira, SDUS (Sustainable Urban Drainage Systems) Erresuma Batuan, BMPs (Best Management Practices) Estatu Batuetan, SUDS (Sistemas Urbanos de Drenajes Sostenibles) Espainian edo MPC (Mejores Prácticas de Control) Latino Amerikan.

Drainatze jasangarriak, konbentzionalak baino ekologikoagoak dira arrazoi hauengatik:

- Gainazaleko ur jariatzea eta emariaren abiadura kudeatzeko gai dira, uholdea gertatzeko aukerak murriztuz.
- Jausten den ur jariatzea erabiltzeko aukera ematen dute.
- Uraren kalitatea babestu edo hobetzeko gaitasuna daukate.
- Uraren ibilbide naturaleko emaria babesten dute.
- Ingurumena eta komunitate lokala laguntzen dute.
- Landarediaren eta gainazaleko uren ebapotranspirazioa ahalbidetzen dute.
- Akuiferoen birkarga naturala sustatzen dute.


3.2 DRAINATZE JASANGARRIKO HIRI-SISTEMA MOTAK

Uraren zikloan azaldu bezala zenbait prozesu natural ematen dira eta drainatze jasangarriko sistemetan prozesu berdinak ematen dira:

- *Lurrunketa*: ozeanoetako gainazaleko ura lurruntzen da Lurraren atmosferara heldu arte.
- *Kondentsazio*: ura lurrun eran igotzen da eta hodeietan kondentsatzen da, euri tanta bezala ezagutzen direnak.
- *Prezipitazio*: behin hodeietan ur tantak sortu direnean, berezko pisuagatik jausten dira euri, elur edo txingor moduan.

- *Infiltrazio*: hodeietatik ura lurrazalera heldu denean, ura infiltratu egiten da zoruan eta lur azpian geratzen da akuiferoak etab sortuz.
- *Isurketa*: infiltratu ez den ura, gainazalean geratzen da ur ibilguetan.


Drainatze jasangarriko hiri-sistema moten eskema orokor bezala hau hartu daiteke:



5. irudia: drainatze jasangarrien sailkapena. Iturria: Julia Otano.

TEILATU BEGETALAK

Teilatu mota hauek zenbait geruzaz osatuta daude: substratu begetal bat, drainatze geruza bat eta mintz iragazkor bat. Eraikin baten teilatuan kokatzen da eta hemen jausten den euri ura, landarediarekin filtratzen da. Ondoren, substratuak ura gordetzen du eta soberan dagoena, drainatze geruza batekin husten da. Aldi berean, ura biltegitratzen denez, bertan dagoen landaredia ureztatzeko gaitasuna dauka.




- 1.- Filtro de hojas.
- 2.- Grava.
- 3.- Vegetación.
- 4.- Sustrato.
- 5.- Lámina geotextil filtrante.
- 6.- Drenaje/almacenamiento.
- 7.- Membrana impermeable.
- 8.- Aislante térmico.
- 9.- Estructura.
- 10.- Bajante.

6. irudia: teilatu begetalak. Iturria: Ayuntamiento de Benaguasil.

UR TANGA

Ur tangak, euri urak gordetzeko balio duten egitura sinpleak dira. Teilatuetatik eta gainazal iragazgaitzetatik datorren ura biltzen dute, ondoren berrerabili ahal izateko. Ur honen erabilera nagusiak, lorategien ureztatzea eta ibilgailuen garbiketa dira. Kokapenaren arabera aire zabalekoak (grabitatez funtzionatzen dutenak) edo lur azpikoak (ponpaketa sistema bat behar dutenak).




- 1.- Filtro para hojas.
- 2.- Bomba de agua.
- 3.- Apertura para mantenimiento.
- 4.- Agua aprovechada para usos no potables.
- 5.- Desvío de las primeras aguas.
- 6.- Excedente al sistema de drenaje.

7. irudia: ur tanga. Iturria: Ayuntamiento de Benaguasil.

ZOLADURA IRAGAZKORRA

Zoladura iragazkorrek sostengu egitura bat dira. Hauek ibilguen eta oinezkoen pasatzea ahalbidetzen dute eta era berean, denboraldi batez gordeko den jariatzea filtratzen dute. Ura biltegitatu ondoren, drainatzeak erabiliz ura husten da. Goiko gainazala, zoladura jarraiaz (hormigoi edo asfalto porotsuaz) edo modularrez (galtzada harriz) eginda egon daiteke.





- 1.- Pavimento permeable.
- 2.- Capa de apoyo de arenas gruesas o gravas finas.
- 3.- Capa de transición con gravas medias.
- 4.- Capa de almacenamiento con gruesas.
- 5.- Suelo natural.
- 6.- Infiltración cuando sea posible

8. irudia: zoladura iragazkorra. Iturria: Ayuntamiento de Benaguasil.

EGITURAZKO ZUHAITZ-TXORKOAK

Egiturazko zuhaitz-txorkoak, zuhaitzaren eta zoladuraren arteko lurzoru zatia da. Egiturazko lurzoru hau legarrez edo material begetalez osatuta daude. Sustraien hazkuntza ahalbidetzen dute eta sostengu gaitasun nahikoa daukate gainetik ibili ahal izateko. Gehiegizko ura baldin badago, lursailean infiltratu daiteke eta hau posible ez bada, hurrengo drainatze sistemara bideratzen da.




- 1.- Rejilla para proteger el árbol.
- 2.- Acera.
- 3.- Suelo estructural.
- 4.- Desarrollo de raíces del árbol.
- 5.- Tubería ranurada de drenaje.

9. irudia: egiturazko zuhaitz-txorkoak. Iturria: Ayuntamiento de Benaguasil.

EURI LORATEGIAK

Euri lorategiak, landarediaz betatako sakonuneak dira, gainazaleko jariatzea biltegitratzea errazten dutenak. Bestalde, elementu kutsagarriak murrizten dituzte filtrazioz, landarediaren bitartez. Ahal izatekotan, ura lurzoruan infiltratzen da eta ezin bada, drainatze bat instalatu daiteke ura modu kontrolatu batean husteko. Landareek ere hustuketan parte hartzen dute transpirazio bitartez.




- 1.- Agua desde superficie impermeable.
- 2.- Bloque dissipador de energía.
- 3.- Separación suficiente de la cimentación.
- 4.- Ancho mínimo (más de 2 m.)
- 5.- Vegetación resistente a periodos húmedos y secos.
- 6.- Profundidad entre 15 y 30 cm
- 7.- Infiltración al subsuelo.
- 8.- Tierra vegetal.

10. irudia: euri lorategiak. Iturria: Ayuntamiento de Benaguasil.

INFILTRAZIO ZANGAK ETA PUTZUAK

Infiltrazio zanga eta putzuak lurzoruan egiten diren hondeaketak dira, gainazaletik datorren ur jarioa biltegitratu eta ondoren lur azpi batera infiltratzeko. Bien arteko diferentzia nagusia, hondeaketa motan dago. Zangak, linealak eta sakonera gutxikoak dira eta drainatze materialez beteta daude. Aldiz, putzuak bertikalak dira eta sakonera handikoak, baina drainatze materialez beteta daude ere.




- 1.- Sistema de pre-tratamiento.
- 2.- Flujo superficial.
- 3.- Ancho.
- 4.- Abertura de inspección visual.
- 5.- Gravas finas.
- 6.- Gravas gruesas.
- 7.- Tubería dren perforada.
- 8.- Infiltración si es posible.
- 9.- Filtro de geotextil.
- 10.- Profundidad de 1 a 2,5 m.

11. irudia: infiltrazio zangak eta putzuak. Iturria: Ayuntamiento de Benaguasil.

SARE FORMAKO KUTXAK

Kutxak eta gelaxkak, polipropilenoaz egindako egitura modularrak dira. Hauen %90 baino gehiago zuloak izango dira eta bestalde, sostengu ahalmena handia izango da. Lur azpiko egiturak egiteko erabiltzen dira normalean, legar eta geotextilekin konbinatuz. Hauen funtzioa, jariatzea biltegitratzea edo behin filtratuta dagoenean, garraiatzea da.





- 1.- Bloques de plástico.
- 2.- Geotextil permeable.
- 3.- Gravas o material granular.
- 4.- Geotextil permeable.
- 5.- Infiltración cuando es posible.
- 6.- Pavimento permeable.
- 7.- Conducto de rebose.

12. irudia: sare formako kutxak. Iturria: Ayuntamiento de Benaguasil.

DRAINATZE IRAGAZLEAK

Drainatze iragazleak, legarrez betetako zangak dira eta normalean, drain-zulatu bat daukate haien oinarrian. Alboetan dituzten azalera iragazgaitzetatik datorren ur jariatzea jasaten dute. Ur hau, filtratu egiten da eta denboraldi batez biltegitratzen da legarretan. Bestalde, drain zulatu horrekin ibaian beheran garraiatzen da ura.




- 1.- Sistema de pre-tratamiento.
- 2.- Flujo superficial.
- 3.- Ancho de la zanja.
- 4.- Abertura de inspección visual.
- 5.- Gravas finas.
- 6.- Gravas gruesas.
- 7.- Terreno con capacidad de infiltración.
- 8.- Lámina geotextil.
- 9.- Profundidad 1-2 m.

13. irudia: drainatze iragazleak. Iturria: Ayuntamiento de Benaguasil.

AREKA BEGETALAK

Areka begetalak kanal zabalak dira, sakonera gutxikoak eta landaredian estaliaz. Hauen funtzio nagusia ura biltzea, tratatzea eta garraiatzea da. Malda daukatenez, jariatzea moteltzea lortzen da, sedimentazioan, filtrazioan eta kutsakorren murrizketan lagunduz.



- 1.- Escorrentía urbana.
- 2.- Máxima pendiente recomendada 5%.
- 3.- Terrazas intermedias cuando pendiente mayor que 5%.
- 4.- Altura de la hierba en torno a 15 cm.
- 5.- Forma trapezoidal.
- 6.- Altura para tratamiento del agua aproximadamente 2/3 de la altura de la hierba.
- 7.- Ancho máximo recomendado del canal 3 m.
- 8.- Pendiente lateral 3:1 como máximo (H.V).
- 9.- Infiltración si es posible.

14. irudia: areka begetalak. Iturria: Ayuntamiento de Benaguasil.


3.3 EUSKAL HERRIAN APLIKATUTAKO ADIBIDE BATZUK

DONOSTIA


Cesar Benito futbol zelaiaren perimetroan areka begetalak instalatuta daude.



15.irudia: Cesar Benito futbol zelaia. Iturria:



16.irudia: drainatze jasangarrien eskema. Iturria: Nora Narbaiza.



17. irudia: Futbol zelaiko ura jasotzen duen areka. Iturria: Nora Narbaiza.

GAZTEIZ

2014an, infiltrazio deposituak eta euri lorategiak instalatu ziren hirian zehar eta Avenida Gasteizen zoladura iragazkorra eta areka begetalak eraiki ziren.



18. irudia: Avenida Gasteizeko drainatze sistemak. Iturria: Gasteizko Udala.



19. irudia: Aveina Gasteizeko drainatze sistemak. Iturria: Gasteizko Udala.

BERGARA

2015an, aparkaleku iragazkor bat eraiki zen parke industrial batean.



20. irudia: aparkaleku bateko zoladura iragazkorra. Iturria: drenajesostenible.com

3.4 ESPAINIAN APLIKATUTAKO ADIBIDE BATZUK


BARTZELONA

2017an egindako proiektua, aparkaleku iragazgaitz baten birmoldaketa da. Obra egin aurretik arazoak zituzten ur jariatze handia zegoelako eta horrek saneamendu sarean kalteak eragiten zituelako. Aparkalekua lur azpian eraiki zen, goiko aldea parke bihurtuz eta drainatze jasangarriak aplikatuz.

Parke honetan parte hartzen duten elementuak honako hauek dira: hustubide iragazlea, bioerretentzio guneak, euri lorategiak eta infiltrazio sistemak besteak beste.



21. irudia: euri lorategi batzuen adibideak. Iturria: Bartzelonako udala.



22. irudia: infiltrazio sakonune baten adibidea. Iturria: Bartzelonako udala.

MADRIL

Madrilgo Alfonso XIII.aren kalean, parke bat dago, zeinetan drainatze jasangarri sistema desberdinak aplikatu dituzten. Parke honetan infiltrazio zangak edo herri baratzeak aurkitu ditzakegu.



23. irudia: euri lorategien adibideak. Iturria: Madrileko Udala.



24. irudia: infiltrazio zangen adibidea. Iturria: Madrileko Udala.

4. DRAINATZE JASANGARRIEN AUKERAKETA IRIZPIDEAK

GITECO ikerketa taldearen ustez, aukeraketa bat egin aurretik inguruko egoera aztertu behar da. Inguruko ezaugarriak aztertzeko, hirigintzako planetara edo aurreproiektuetara jo behar da honako informazio hau bereganatzeko:

- Jarduketa mota: eraikuntza berria edo zaharberritzea.
- Arloen desberdintzea: erabiliren aurreikuspena edo zoladura motak.
- Hirigintza irizpideak edo estetikoak: ingurune arkitektonikoa eta ohiko zoladurak.

Gainera, SUDS mota aukeratzeko orduan aspektu hauek kontuan hartu behar dira ere:

- Ingurune naturala: babespen berezia daukaten guneak, babespen maila emari eta lur-azpiko uretan, landaredia eta animalia mota inguruan.
- Ingurune soziala eta ekonomikoa: garapen jasangarriaren eskaera, marko ekonomikoa eta mantenu aurreikuspenak.

Ana Abellan (2015) eta Sara Perales-en (2008) arabera, hirigune baten drainatze jasangarriko teknikak aplikatzen direnean, kontuan hartu behar da sistema bat osatzen dutela eta ez dela gomendagarria modu indibidualean kokatzea. Kate gisa hartu behar da, helburu orokor batzuk bete behar ditu emaitza partzialetatik abiatuz.

Aukeraketa fase hasieran, lehenetasun bezala neurri ez estrukturalak aukeratzea da, prebentzio neurri bezala hartu daitezkeenak. Hala ere, kasu gehienetan ez dira nahikoak eta neurri estrukturalak aukeratu behar dira. CIRIA-ko manuala jarraituz, drainatze jasangarrien diseinuaren prozesua, lau pausuetan ematen da:



25. irudia: drainatze jasangarrien diseinuaren pausuak. Iturria: CIRIA.

Aukeraketa prozesuan kontuan hartu behar dira egon daitezkeen arriskuak, ingurumenarekiko eraginak, eragin fisikoak, sozialak eta ekonomiak. Leku konkretu bateko diseinu irizpideak aukeratzeko direnean, oinarri hauek lehenesten dira: zerbitzuaren maila, jasangarritasuna eta soluzioaren balio totala.

Diseinurako irizpideen klasifikazioa:

- *Irizpide hidraulikoak*: ziurtatu ez dutela kalterik eragiten ez gizakiengan ez gunearen erabilpenean. Kontuan hartu behar da ere azpiegitura desberdinen biltegitate bolumen gaitasuna eta honetarako ezinbestekoa da tokiko baldintza klimatologikoak ezagutzea. Diseinua egiteko, birgertatze aldi desberdineko ekaitzak erabiltzen dira.
- *Uraren kalitatearen irizpidea*: helburu orokorra kutsadura arriskuak txikitzea metodo desberdinen bidez. Erabiltzen diren metodoak: infiltrazioa, filtrazioa, sedimentazioa, xurgapena ...
- *Erabilpen publikoaren irizpidea*: segurtasuna, osasuna, ingurumen inpaktu egokia eta onura sozialak bermatu behar dira.
- *Ingurumen irizpidea*: drainatze jasangarrien balio ekologikoa handitzeak aniztasun biologikoaren hobekuntza dakartza. Aniztasun biologikoa handitzeko honako metodoak erabiltzen dira: bertako landareak erabili, drainatze naturalak aplikatzea, habitat desberdineko paisaiak sortzea ...

CIRIA manualak drainatze jasangarri motak sailkatzen ditu haien gaitasunen arabera:

Grupo de SDUS	Técnica	Tratamiento potencial de la calidad del agua					Control hidráulico			
		Eliminación de los sólidos suspendidos totales	Eliminación de metales pesados	Eliminación de nutrientes (fósforo, nitrógeno)	Eliminación de microorganismos	Capacidad para eliminar sólidos disueltos y en suspensión	Reducción del volumen de escorrentía	Idoneidad del control para tormentas de diferente periodo de retorno		
								0,5 años	10-30 años	100 años
Retención	Estanque de retención	A	M	M	M	A	B	A	A	A
	Almacenamiento subsuperficial	B	B	B	B	B	B	A	A	A
Humedal	Humedal poco profundo	A	M	A	M	A	B	A	M	B
	Estanque de detención extendido	A	M	A	M	A	B	A	M	B
	Estanque/ Humedal	A	M	A	M	A	B	A	M	B
	Humedal pequeño	A	M	A	M	A	B	A	M	B
	Humedales con gravas sumergidas	A	M	A	M	A	B	A	M	B
Infiltración	Humedal en canal	A	M	A	M	A	B	A	M	B
	Zanjas de infiltración	A	A	A	M	A	A	A	A	B
	Estanques de infiltración	A	A	A	M	A	A	A	A	A
	Pozos de infiltración	A	A	A	M	A	A	A	A	B
Filtración	Filtros de arena superficiales	A	A	A	M	A	B	A	M	B
	Filtros de arena subsuperficiales	A	A	A	M	A	B	A	M	B
	Filtros de arena perimetrales	A	A	A	M	A	B	A	M	B
	Biorretención	A	A	A	M	A	B	A	M	B
Detención	Zanjas filtrantes	A	A	A	M	A	B	A	A	B
	Estanques de detención	M	M	B	B	B	B	A	A	A
	Canales abiertos	Cunetas	A	A	A	M	A	M	A	A
Cunetas húmedas		A	A	M	A	A	B	A	A	A
Cunetas secas		A	A	A	M	A	M	A	A	A
Control en fuente	Green roof	S/A	S/A	S/A	S/A	A	A	A	A	B
	Recolección de agua de precipitación	M	B	B	B	S/A	M	M	A	B
	Pavimento permeable	A	A	A	A	A	A	A	A	B

Non:

- A: potentzial altua
- M: potentzial ertaina
- B: potentzial baxua
- S/A: aplikaziorik gabe

5. STORM WATER MODEL MANAGEMENT (SWMM)

5.1 ZER DA SWMM?

Storm Water Model Management (SWMM) kalkulu hidrológico eta hidraulikoak egiten dituen software bat da. Proiektu honetan, programa hau erabili da drainatze jasangarriak eraiki aurretik eta ondoren saneamendu sarearen analisia egiteko. Gaur egungo sarea modelizatuko da eta honekin, ondorio positiboak lortzea espero da.

5.2 MODELIZAZIOAREN EZAUGARRI OROKORRAK

Modelizazioaren helburu nagusia egoera erreala egoera birtuala bihurtzea da, ahalik eta antzekotasun handienarekin. Horretarako, programak elementu bakoitzarentzat zenbait aukera ditu. Software honek lau sistema handietan banatuta dagoela esan dezakegu:

- Atmosferaren sistema: prezipitazioen datuak eta informazio klimatikoa dauka.
- Gainazalaren sistema: arroen bidez adierazten da eta atmosferaren sistema besteekin lotzen du.
- Garraio sistema: uraren garraio elementuak ditu (hodiak, urtegi ...).
- Lurpeko sistema: uraren mugimendua adierazten du.

Garrantzitsua da azaltzea programa honetan, euri urak zelan transformatzen diren emari. Prezipitazio kantitatekin zenbat infiltratu den kalkulatu da eta infiltratu ez den bolumenarekin ur jariakina kalkulatu da modu hidrológicoan. Gainazaleko ur infiltratuaren mugimendua ez da kontuan hartzen, bakarrik balio du arroen euri efektiboa kalkulatzeko. Euri uraren estimazioa egiteko SWMM-k hiru modeloekin lan egitea ahalbidetzen du: Horton, Green-Ampt eta SCS.

5.3 PARAMETROEN EZAUGARRIAK

Sarean gertatzen diren prozesuak irudikatzeko, programa informatikoak zenbait elementu desberdin ditu. Etxebarria parkeko sarea hiru elementu nagusirekin irudikatu da: putzuak, hodiak eta azpiarroak.

- *Putzuak.* CAD dokumentutik atera dira putzuen koordinatuak eta altuera. SWMM programan putzuaren hondoaren kota ezarri da eta ondoren, putzuaren altuera totala. Horrela definituta egongo dira putzuak.
- *Hodiak.* CAD artxibotik koordinatuak atera ditugunez, hodiaren luzerak software-ak berak kalkulatu ditu. Dokumentu berdietik atera dira hodiaren diametroak eta geometria. Aldi berean, hodietatik igarotzen den uraren norabideak ezarri dira eta baita ere Manning-en koefizientea, berdina izan dela sare osoan zehar ($n=0,013$).
- *Azpiarroak.* Elementu hau, bertatik pasatzen den ur jariatzea eta prezipitazioak simulatzeko erabiltzen da. Azpiarroak definitzeko, parkearen topografia kontuan hartu da aurreko CAD artxibo berdinarekin. Elementu hauek guztiz definitzeko azpiarro bakoitzaren malda, zabalera eta infiltrazio ehunekoa definitu da. Infiltrazio ehunekoa zehazteko, kurba zenbakia erabili da kasu honetan ($N=61$).

6. LANAREN IRISMENA ETA HELBURUAK

Proiektu honen helburu nagusia ikerketa bat egitea da, Bilboko Etxebarria parkean hiri-drainatze sistema jasangarrien aplikazioaren eragina aztertzeko. Ikerketa egin ahal izateko, diseinu eta eraikuntza teknika batzuk aplikatu dira, Espainian hain ezagunak ez direnak baina bai maila internazionalen.

Lan honen gai nagusia, hirigintza eta hiri-saneamenduarekin erlazionatuta dago, baina ikuspuntu ekologikoago batetik. Xedea hiria urbanizatzea edo errehabilitatzea da ingurumen balore batzuekin, uraren gestioa birplanteatuz. Zehazki, azpi-arroek jasaten duten ur-bolumena murriztea da proiektuaren helburua. Kasu honetan, uraren kalitateari buruz ez da egin azterketarik, baina kontuan hartu behar da hiri-drainatze sistemek eragin positiboa daukatela uraren kalitatean.

Azken finean, azkenengo hamarkada hauetan hirien eraikitze azkarrak eragin duten lurzorua inpermeabilitatea beste ikuspuntu batetik ikustea da. Aztertu nahi da, benetan hiri-drainatze sistema jasangarrien erabilera eragin positiboa daukala. Horrela, eraikuntza berrietan sistema hauen erabilera bultzatzeko eta, etorkizunean, hiri jasangarriagoak edukitzeko.

7. LANAK DAKARTZAN ONURAK

Lan honek gehien bat dakartzan onura hiri-drainatze sistema jasangarriak gehiago ezagutzea izango da. Proiektu honetan, Etxebarria parkean drainatze jasangarriak aplikatzeak izango dituen eragin positiboak azalduko dira, hau da, saneamendu sarera heltzen diren emari maximoak murriztuko dira. Saneamendu sarean sartu den ur-bolumen totala murriztuko da ere aplikatu ditugun sistema jasangarriekin.

8. AZTERKETA EREMUAREN EGUNGO EGOERA

Aurretik komentatu bezala, Udalak Etxebarria parkea aukeratu zuen ikerketa hau burutzeko, Bilboko parkeen artean handienetarikoa delako eta aldi berean, erabilera anitzak dituelako. Etxebarria parkean 1980ko hamarkadan Echevarria industriaren fabrika nagusia kokatzen zen, adreiluzko tximinia batekin. Gerora, Basauriko fabrika eraikitzerakoan pixkanaka produkzioa eta langilea bertara eraman zituzten. Orduan, udalak lurzoru honekin zer egin erabaki behar zuen eta parke bat eraikitzea erabaki zuen, hiriaren parkeen gabezia konpontzeko. Honela, Etxebarria Parkea Bilboko parkerik handiena da gaur egun. Gainera Bilboko Aste Nagusian barrakak bertan ipintzen dira eta bertatik su artifizialak ikusten dira ere.




27. irudia: parke Etxebarriaren argazkia. Iturria: <http://www.ubiqarama.org>



28. irudia: parke Etxebarriaen goitiko bista. Iturria: INME

8.1 KOKAPEN GEOGRAFIKOA

Proiektu honen kokapena Bilbon ematen da, Uribarri eta Begoñako auzoen artean kokaturik hain zuzen ere. Hona heltzeko metroko Zazpi Kaleetako geltokiko igogailua erabiltzea da erosoena, baina hainbat Bilbobus geltoki ditu inguruan.



29. irudia: Bilboko mapa bat. Iturria: Bilboko udala.



30. irudia: Etxebarri parkearen eskema bat. Iturria: Bilboko udala.

8.2 GEOLOGIA ETA MORFOLOGIA


Bilbo Bizkaiko Hego-Sinclinorioko alpean kokatzen da. Ikertuko dugu gunean, Lurtek (2017) enpresatik ateratako datuetatik, aurre Kretazioko materialak aurkitu ahal dira, baita ere kuarternarioko biltegi batzuk. Estrukturari dagokionez, Sinclinorio horrek NW-SE norabidea dauka, beraz formakuntza litologikoek eta estratifikazioek norabide berdina daukate. Egin den ikerketa kontuan hartuz, ondorioztatu daiteke, arroka trinkoa lodiera desberdineko material betegarrien azpian aurkitzen dela. Material betegarri eta arroka artean, leku konkretu batzuetan, lurzoru kolubialak agertzen dira. Ikertu diren material betegarrien lodiera 10,4 metro eta 25,2 metroren artean daude. Lurzoru kolubialei dagokionez, ez dira heltzen metro batera. Gehienbat bi motatako material betegarriak aurkitu dira: granularrak eta kohesiboak (legarrak eta hareak).

Bilboko geologiaren azterketa egin da infiltrazio koefizientea jakiteko, lurzoruaren ezaugarriak aztertu eta hiria osatzen duen materialak sailkatu dira. Mapa geologikoa atera da IGME-tik (Instituto Geológico y Minero de España) eta bertan agertzen diren lur bakoitzaren iragazkortasun koefizientea jarri da. Sailkapen hau egiteko CIRIA manualetik ateratako hurrengo taula erabili da:


TABLE 25.1 Typical infiltration coefficients based on soil texture (after Bettess, 1996)		
Soil type/texture	ISO 14688-1 description (after Blake, 2010)	Typical infiltration coefficients (m/s)
Good infiltration media <ul style="list-style-type: none"> gravel sand loamy sand sandy loam 	Sandy GRAVEL Slightly silty slightly clayey SAND Silty slightly clayey SAND Silty clayey SAND	$3 \times 10^{-4} - 3 \times 10^{-2}$ $1 \times 10^{-5} - 5 \times 10^{-5}$ $1 \times 10^{-4} - 3 \times 10^{-5}$ $1 \times 10^{-7} - 1 \times 10^{-5}$
Poor infiltration media <ul style="list-style-type: none"> loam silt loam chalk (structureless) sandy clay loam 	Very silty clayey SAND Very sandy clayey SILT N/A Very clayey silty SAND	$1 \times 10^{-7} - 5 \times 10^{-6}$ $1 \times 10^{-7} - 1 \times 10^{-5}$ $3 \times 10^{-8} - 3 \times 10^{-6}$ $3 \times 10^{-10} - 3 \times 10^{-7}$
Very poor infiltration media <ul style="list-style-type: none"> silty clay loam clay till 	– – Can be any texture of soil described above	$1 \times 10^{-8} - 1 \times 10^{-6}$ $< 3 \times 10^{-8}$ $3 \times 10^{-9} - 3 \times 10^{-6}$
Other <ul style="list-style-type: none"> rock* (note mass infiltration capacity will depend on the type of rock and the extent and nature of discontinuities and any infill) 	N/A	$3 \times 10^{-9} - 3 \times 10^{-5}$

31. irudia: infiltrazio koefizienten sailkapena. Iturria: CIRIA.

Taula honetan ikus dezakegunez, infiltrazio gaitasunaren arabera lau modutan sailkatzen dela; infiltraziora bideraturiko sistemak, infiltrazioa partzialki bideratzen dutenak, oso gutxi infiltratzen dutenak eta infiltrazioa onartzen ez dutenak.



32. irudia: Bilboko mapa geologikoa. Iturria: Instituto Geológico y Minero de España.



33. irudia: Etxebarri parkeko mapa geologikoa. Iturria: Instituto Geológico y Minero de España.

Aurreko irudietan ikus dezakegunez, gure aztergunea kareharriz eta tupaz (*loam eta chalk*) osaturik dago. Bi mota hauek arroka karbotanaturak dira, hau da, gehien bat karbonatoz osatuta daude. Beraz, CIRIA-ko sailkapena jarraituz, gune hau infiltraziorako horren egokiak ez diren geruzek osatzen dute (*poor infiltration media*). Lur mota hauen infiltrazio koefizientea 3×10^{-8} eta 3×10^{-6} bitartean egongo da. Ondo geruzatuak daudenez, urak materiala zeharkatzean zailtasun handiagoak izango ditu. Eremu honetan infiltratzea lehentasuna izango da, baina biltegitartzeko gaitasun handiagoa dute sistemak jarri beharko dira. Horrela, ur guztia lurzoruan infiltratzen ez bada, sisteman bildu ahalko da lurzoruak eskatzen duen arte edo garraiorako sistemak beste tokiren batera garraiatzen duen arte.

Orain jakinda gure gunea erdizka infiltratzen duen gunea dela, ondo infiltratzen den guneko sistema berdinak jarri ahal dira, baina azpialdean harea geruza handiagoa edo ura biltzeko plastikozko gelaxkak jartzea komeni da. Bestalde, garraiorako sistemak jartzea ere gomendagarria da, infiltratu ez den ura gune iragazkorrago batera bideratu ahal izateko. Gainazal iragazkorra, infiltrazio deposituak edo infiltrazio putzu eta zangak egokiak dira adibidez. Zeharkako tratamendua egiten duten sistemak ere jarri daitezke, gainazal iragazgaitza duten bitartean: atxikitze biltegiak eta hezegune artifizialak esaterako.

Beste alde batetik, lurzoria sailkatu behar dugu talde hidrológicoetan eta horretarako, infiltrazio gaitasuna eta lurzoruaren ezaugarriak erabiliko ditugu.

Grupo hidrológico del suelo	Infiltración cuando están muy húmedos	Características	Textura
A	Rápida	Alta capacidad de Infiltración > 76 mm/h	Arenosa
B	Moderada	Capacidad de infiltración 76-38 mm/h	Arenosa-limosa Franca Franco-arcillosa-arenosa Franco-limosa
C	Lenta	Capacidad de infiltración 36-13 mm/h	Franco-arcillosa Franco-arcillo-limosa Arcillo-arenosa
D	Muy Lenta	Capacidad de infiltración <13 mm/h	Arcillosa

34. irudia: lurzoruen talde hidrologikoak. Iturria: Agua y SIG.

Descripción	Grupo
Aluviones y Coluviones actuales	A
Arenas y margas	B
Areniscas rojas, filitas, cuarcitas y pizarras	C
Basaltos	D
Calizas recristalizadas cremas	B
Calizas tableadas azules	B
Coluvial	A
Conos de deyección	A
Cuarcitas blancas, micaesquistos plateados y gneises albíticos	B
Cuarcitas micaceas	D
Diabasas	D
Dolomías negras y calizas	B
Filitas, cuarcitas y calcoesquistos	C
Glacis. Limos negros y rojos y cantos encostrados	C
Indiferenciado	C*
Limos y arcillas rojas con episodios de caliche	C
Margas arenosas y margas	C
Margas blancas	D
Margas grises	D
Margas y areniscas	B
Marmoles calizos y dolomíticos	C
Mármoles fajeados y mármoles blancos y crema	C
Micacitas con granates	C
Micaesquistos y cuarcitas	C
Pizarras micaceas y micađtas	D
Terrazas	B
Yesos	C

35. Irudia: lurzoruen talde hidrologikoen sailkapena. Iturria: Agua y SIG.

Aurreko taulak aztertuta, kontuan hartuz infiltrazioa moderatua edo erdizkakoa dela eta gehien bat kareharriz eta tupaz (margas y areniscas) osatuta dagoela, esan dezakegu lurzoru mota B motatakoa dela.

8.3 HIDROLOGIA

Ikuspuntu hidrogeologiko batetik, Lurtek enpresak emandako dokumentuetatik ondorioztatu da, Kretazioko material sedimentarioak eta arroka bolkanikoak egoera osasuntsu baten ia guztiz iragazgaitzak direla. Hala ere, aurreikusi behar da urtaroen arabera, iturburuak agertu daitezkeela arroka trinkoa meteorizatu den lekuetan. Kontuan hartu behar dira ere, hezetasun txikiak eta ur isurpenak agertu ahal diren, baina ez da maila freatikorik aurkitu hurbil.


Ibaiei dagokionez, Ibaizabal ibaiak zeharkatzen du Bilbo eta Abusu auzotik aurrera, itsasadar bihurtzen da. Antzina, Bilbo hainbat errekek zeharkatzen zuten, mendietatik jaisten ziren itsasadarrera helduz, baina lurperatu egin zituzten hiria eraiki ahal izateko. Gure lurzorutik metro batzuetara besterik ez dago ibaia.

8.4 KLIMATOLOGIA

Bilboko klima ozeanikoa da, korrante bero baten eragina dauka eta urtean zehar temperatura lasaia dauka. Udazkenean eta udaberrian, euriak ugariak izaten dira eta uda ez da oso beroa izaten. Udan batzuetan besteko temperatura 21 gradukoa da eta neguan aldiz 7 gradukoa. 1979 urtetik 2010ra bitartean eman zen tenperaturarik altuena 41,96^o izan zen 2003ko abuztuan eta aldiz, tenperaturarik baxuena 1985ko urtarrilean -6,6^o-ko balioarekin.

Bestalde, urteko euriak 1200mm ingurukoak dira, urtean zehar era berdintsuan banatuta, baina normalean neguan euri gehiago egiten du. Aipagarria dira 1983ko uholdeak, 24 ordutan metro karratuko 250 litro baino gehiago jaso ziren.

Hilabeteen batzuetan besteko prezipitazio eta temperatura balioekin Gausse diagrama adierazten da, non urtean zehar lehorterik ez dagoen ikusten da. Lehorterik ez agertzeko, batzuetan besteko prezipitazioen balioak ez dira izan behar batzuetan besteko temperatura balioen bikoitza baino txikiagoak.



36. irudia: Bilboko urteko bataz besteko prezipitazio eta tenperatura balioak. Iturria: SAITEC.

Proiektuaren kokapeneko datu gehiago zehaztu dira, hurbilen dagoen estazioetik hartu dira: Bilbo (aireportua) 1082 estazio meteorologikoa. Datu hauek AEMET-tik (Agencia Estatal de Meteorología) atera dira.

CLAVE	DENOMINACIÓN	LONGITUD	LATITUD	ALTITUD
1082	Bilbao (aeropuerto)	2° 54' 21" W	43° 17' 53" N	39

37. irudia: Bilboko estazioaren datuak. Iturria: AEMET.

Hurrengo taulan 24 orduko prezipitazio maximoak agertuko dira birgertatze aldi desberdinetarako.

Periodo de retorno	2	5	10	25	50	100	200	500
Precipitación	61	83	98	121	138	157	175	202

38. irudia: 24 orduko prezipitazio maximoak birgertatze aldi desberdinetarako. Iturria: AEMET.


Iraupen eta birgertatzealdi desberdinetarako euri intentsitateen balioak adieraziko dira hurrengo taulan:

VALORES CLIMÁTICOS	VALOR MENSUAL												ANUAL
	ENE	FEB	MAR	ABR	MAY	JUN	JUL	AGO	SEP	OCT	NOV	DIC	
PARÁMETRO													
